




HONDARRIBIA

50, Zenbakia

UDAL EUSKARA-KONTSEILUA

100 pta.

1993. Urria



AURKIBIDEA

Aurkibidea	2
Editoriala	2
Oharrak	2
INKESTA: Udazkenean	3
Itsasoko belarra M. Ugalde	4
BLAGAN: Jon Obeso, belauntzian txapeldun J. A. Letamendia	5
Hondarribia, Seattle Txikia	6

BITXIKERIATAN DABILENA: Uso mezulariak komunikabideak utzi eta lehiaketetan sartu dira. Ivan Agirre	8
--	---

Gure patriarkak: Sagarzazu. Fermin Olascoaga	10
---	----

Oraindik hemen gaude bizirik!! Emeki	12
KOMIKIA. M. Azkona	13
HONDARRIBIA MARTXAN	14

DEMOGRAFIA: Jalotzak, Ezkontzak eta Heriotzak	15
--	----

DENBORAPASA	15
-------------------	----

Erredaketa,
Koordinaketa
eta Maketazioa: Nerea Bello
Ane Muñoz

Argitaratzailea: Udai Euskara-Kontsellua
Inprimategia: Rogelio Fernández
Juan Arana, 27 - Irún
Tel.: 61 21 03

Fotokonposizioa: Egia, S.A.L.
Nafarroa Etorb., 21
Donostia
Tel.: 29 02 00

Legezko gordailua: S.S. 122/86

EDITORIALA

Kaixo:

Gure aldizkariaren aro berriko hirugarren alea aurkezte-
ra gatoz oraingoan. Bide batez zuei irakurleei esan, zuen-
tzat gorde dugun atala, **IRITZIA EMANEZ**, alegia, zabalik
dagoela bertan zuen ikuspuntu eta iritziak agertu ahal iza-
teko.

Era berean jakinerazi nahi dizuegu elkarte edota edo-
zein taldek antolatutako ekitaldiei buruzko informazio eta
deiak azaltzeko bide bat duzuela HONDARRIBIA aldizka-
rian.

Besterik gabe eta ale hau zuen gustokoa izango dela-
koan.

Agur.

Ane eta Nerea

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

URRIAK

20 J. M. Iraola
21 Sagrario Fiz
22 P. Almajano
23 P. Lizarraga
24 J. M. Erauskin
25 M. Martinez
26 J. M. Iraola

ETA HORRELA JARRAIAN

Mayi, Alm. Alonso kalean. 64 21 91
Iraola, San Pedro, 5. 64 10 27
Erauskin, San Pedro, 28. 64 10 18
Fiz, Donosti kalea. 64 43 16
Almajano, Mendelu, 35. 64 00 68
Lizarraga, Damarni, 1. 64 57 98

TXANDAKO OKINDEGIAK

URRIAK

24 Arratibel
31 Garmendia

AZAROAK

1 Martinez
7 Arratibel
14 Garmendia

ETA HORRELA JARRAIAN

Arratibel, Zubieta kalean. 64 19 75
Garmendia, Santiago k. 64 11 36
Martinez, Kale Nagusia. 64 12 12

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan

LARUNBATETAN

Arratsaldeko 7,00etan Portuan

IGANDETAN

Goizeko 8,30etan Betherranen
Goizeko 9etan Amuten
Goizeko 9,30etan Guadalupe
Goizeko 11etan Portuan

INKESTA

UDAZKENEAN



Udararen amaiera dela zenbait ezaugarrirenatik jakin dezakegu. Jendearen mugimendua gutxitu da, eguraldiak eta ordu aldaketak egunak lehenago bukatzea lortu dute urtero bezala. Ikasle eta irakasleentzat kursoaren hasiera garala da, zalantzarik gabe ezaugarri garrantzitsuenetarikoa bat garai honetan. San Migelek sortutako itsasaldi biziak eta udazkeneko paseoak ere garai honetako elementu nabarmenak dira.

Ezaugarri hauekin batera, azaroaren erdialdean guztiok negu partearekin erlazionatzen dugun fenomeno bat gertatzen da, San Pedro kaleko zuhaitzei hostoak mozteko momentua da. Kalean argi gehiago dago baina honek itxura hotzagoa eman dezake baita ere. Beraz, kale honetan zehar paseoan gindoazela, bertan zegoen zenbait herriarregina jo dugu: nola nahiago dituzu zuk San Pedro kaleko zuhaitzak: hostoekin ala historik gabe?



1. - M.^o TERESA: Neri San Pedro Kaleko zuhaitzak hostoekin gustatzen zaizkit gehiago. Hostorik gabe triste samarra iruditzen zait kale hau, udazkenari orolatarazten baitit, noski; udazkenean eguraldi ona egiten badu kanpora ateratzen naiz, bestela, eta normalean hala izaten da, eguraldi txar eta tristearekin etxean gelditzen naiz, edo kalera atera eta berehala

la tabernatan sartu egin behar izaten dugu. Horregatik iruditzen zaizkit zuhaitzak askoz ere alaiagoak udan bezala hostoekin daudenean.



3. - MAKO: Noski hostoekin nahiago dut, baina batez ere uda gehiago gustatzen zaidalako. Nire ustez San Pedro kaleko zuhaitzek urteko zein sasoieta gauden ongi definitzen dute, baina noski ez bakarrik hostoak izan edo ez dituztelako, baizik hostoak izateak herria udan alai, jende gehiagorekin, eguraldi onarekin eta abar dagoela adierazten baitute. Gero neguan

hostoak kentzen dituztenean dena oso triste gelditzen da. Eguraldia aldatu egiten da, euririk hasten dira, eta orokorrean San Pedro Kalea triste samar eta ilun egoten da negu osoan zehar.



2. - EMILIO: Bere denboran hostoekin eta bere denboran kenduak. Kendu beharra dago, bestela urte guztian hau zermikeria hutsa izango litzateke, zikinkeria bat, kale guztia hostoz beteta... Hala ere politagoa, alaiagoa iruditzen zait orain diren bezala, hostoekin, baina bestalde, zuhaitza guztiak bezala, bere denboran hostoak kendu behar izatea ondo iruditzen

zait. Sasoi bakoitzak badu bere enkantua; uda guztian gure zuhaitzak hostoekin ikustera ohitu egiten gara, baina gero bapatean bota egiten dituzte hostoak, gero jaso... horrek badu bere grazia. Gainera beti izan da horrela, txikitatik ezagutu dut nik hostoak mozteak, eta horregatik ezin dut imaginatu udazken batean zuhaitzetako hostoak dauden bezala ustea.



4. - ANGELA, PETRA eta SEBERINA: Nola hobeto? Udan horrela, hostoekin, eta neguan historik gabe. Hemendik aurrera moztuak egotea hobeto da, zeren hotza egiten duenean hostoek ez dute eguzkia pasatzen uzten, eta kale osoa txoko ilun eta hotz batean bihurtzen da. Zaharrontzat okerrago da zuhaitzek neguan hostoak izatea, badirodi hostoekin goxo eta estallago egongo garela, baina hori ez da horrela, guztiz kontrakoa da gertatzen dena. Gu hemen eserita egoten gara beti, eta badakigu ondo zer den komeni dena... Gainera, euria egiten duenean hostoetan gelditzen diren tantek busti egiten gaituzte. Betidanik egin izan da Hondarribian, urtero urtero. Ia ez zaigun historik gabe tristeagoa iruditzen? Inondik ere! Alaiagoa da, noski, bestela ilun iluna gelditzen da kalea.

ITSASOKO BELARRA



Orain arte, belarretara, baserri-tarra irten ohi zen belardira; gaur arrantzalea ere hasia da itsasoko baratztatik garraioan.

Bolivar Askatzaileak esan zuen behin, gogaitua zegoen batean: "He arado en el mar" (itsasoan aritu naiz gol-daketan), alferrikakoa izan zela adierazteko. Gizon handi hura ez zen alferrik aritu; nahi zuen guztia lortu ez bazuen ere, Espainiako kolonia izate-tik herri asko altza eta eraman zuen askatasunera. Gaurko arrantzaleak ere, Itsasoan hartzen duten belarretik biziitzeko modurik aurkitu ez badu ere, arraina eskas denean ikasi du itsa-soan jaiotzen den "belarra", alga edo "auka", jaso eta txarra ez den prezioan saltzen.

Hau ez da aspaldiko lana.

Euskal hiztegieta itsas-belar honen aipamen bila ibili naiz, eta ez dut aurkitu.

Plazido Mugikak aipatzen ditu: "Putzar", erreka-ko belarra; "txurgun belar" (itxas-arroka artekoa); "ur-belar", (ureko belarra). Beste belar mota bereziak aipatzen ditu, hara: senda-belarra, zorri-belar eta kukuso-belarra, eta noski, larreak mendian. Baina itsasoarekin lotuta dagoen besterik ez.

Pierre Lhandek: "Belar" eta "bel-har" bakarrik, "bedar", eta bigarren zentzua erakusten duten batzuk,

hauen artean: "Belarra busti": kopeta busti. Itsasoarekin loturik, ez.

X. Kintana e.a., 2000 bi mila: Belarra, lurrekoa bai, noski, baina ez ur edo itsasoarekin zerikusirik duenik.

Koldo Mitxelena, Azkue barru, Orotariko euskal hiztegiak itsasoarekin nolobait lotua: "Itxasuan hur kotera, lurrarian belhar, mündüko zühain orotan osto, plazetan erhauts, itsaso eta ühaintz bazterretan hariña bihi den bezanbat". **Lehorrean:** "Ahuntzak, behiñ zoala / hauzoko belhar berrira". "Calvariora joan zan, miraz eta "zabila" deritzan belar min batekin egindako eun libra okendu berekin zituela". "Bizirikan gelditzen bada libeltzian / ori umatzean esnia etxian / gazta abatztian / gazura arratsian / belarrak gizenduko du Malatzian". "...lurreko belarra izanen da zure hazkurria". "Ara iru-orribelarra, belar bat bera izanik, iru orri berdin-berdiñak ditu". "Bedar edo pipa-bedar". "Tabako belarra" aipatzen da Lanz-en 1817 bandidoen aurka egindako prozesoa. Ba da "belar beltza", eta "us-astoa" ere deitua, kantzerra sendatzeko erabiltzen dena. Belar "beltza" ere, eta baita "bedar-zoro", udan zingrietan aurkitzen dena.

Hauak, batzuk aipatzeko, baina belar gorria itsasoan, ez.

Zer ote du arrantzaleek dakarten belar moderno honek gaur hainbeste-

ko estima eta balio izateko? Galdetu dut kai zahar eta berrian, eta esan di-date "belar" hau orain hogeita bost bat urte jasotzen zela noizbehinka Butron pasealekuko muturrean dagoen arroka xabal-ildaskatuan, berez itsaso handiarekin etorri eta marea beheartzean geratzen zena, baina, egiatan oraingo itsas-ondoko arroketatik hartzea, nolabaiteko arrantza hau, berria da, hamar-hamabost bat urtekoa. Nolanahi jakin nahi izan dut ikuspegi zientifikotik zer dioten, eta hala esan dit honetan dakien batek: Zazpi motatakoak omen dira alga hauek, eta janarietarako, postreak egiteko eta sendagai bezala, batez ere honetarako erabiltzen omen da; kosmetikoetarako ere bai. Orain hemen jasotzen den mota, "Agar-aga" edo "Agar" izenekoa da, eta jelatina egiteko erabiltzen da gehienbat. Izena, Malayako hizkuntzatik jaso, hain xuxen; esan berriak direnetarako balio dute, baina baita bakteriolegian ere, eta farmazietan laxante bezala ere bai.

Ez da, bada, harritzekoa gaur itsas-belar gorri honek lortu duen balioa. Atuna, bixigua eta txipiroia harrape-tzea hobe, baina hauek falta direnean ez dator gaizki tona batzuk belar gorri kamioiean Puerto Refugion kargatu eta arraina balitz bezala fabriketara bidaltzea.

BLAGAN

JON OBESO,
BELAUNTZIAN TXAPELDUN

Belak itsasoen, bi gauzatarako balio ditu: Bmugi-indarra emateko eta norabidea erabakitzeak. Bela gauza zaharra da munduko eta Hondarribiko historian, ez dakigu fenizioek ekarritako ala Madalena auzoko norbaitelk haizegoaz gonazpikua idortzen ari zelarik asmatuta. Jakin behintzat badakigu bikingoak oso trebeak zirela bela handiko ontzi luzazga eraman. Agian, herri olimpiadetan jarri behar litzateke bela frogara, buruko adarduna irudi hutsa baino gehiago izan dadin. Arrantzale zaharrak ere oroituko dira nolakoak ziren baforeak sortu aurreko arrantzako belauntziak. Guk espaldiko postal grisetatik bakarrik ezagutzen ditugu.

Dena den, ez dira izango berrogeita hamar urte bela kirol gisa munduan modari jarri zenetik. Gaur egun material sintetiko berriek prezioak jaitzazti dituzte eta edozein eskolakumeren aukeran dago. Hondarribiko ikastetxeek bederen horren aukera eskaintzen dizute eskolaz kanpo jardunetan aritzeko.

Badira Hondarribian ere, eta ez gutxi, horretan aritzen direnak. Antu ez-erik santu ere direnak: Jaber Lorea, Naiara Lazkanategi, Iker Martínez, Ainhoa Zabela, Gorka Narbarte, Ugaitz Elias, Karmele eta Xabier Elxalde, J. Jauregi, eta vaurien kategorian Mikel Vazquez eta ofizio Jauregi dira egunkarietan bildu ditugun horietako izen batzuk. Garaipenak hainbat maila eta lekutan izan dira, baina optimist kategorian aurren, eta munduko txapelketaraino iritsita, Jon Obeso ikusi dugu bere hamalau urte loratuetan.

Jon Obeso Agirre, 1979ko irailaren 19an iritsi zen lehen aldiz mundu horietako argitara. Segur aski udazkeneko itsas haize epelak gozoki jotzen zuen eguna guren, galdetu izaezazu bestela Jaizkibelgo lami.

Lehen sei urteak Hondarribiko Parte Zaharrean eman zituen Obeso, murruren ondoan, Jeneral Leizaola kalean Erreginarren baliatetik ez urriti, eta orain kopa inguruetan bizi da familiako lukotea Katalina Erauso kalean. Beste hondarribiar asko bezala Salarikan ikusi guren jolasen Arma Plazako goietarra izan baina lehen. Handik jaitzita, Pedro Aginjaldearen burutu zuen Oinarriko Hezkuntza Orokorra eta orain, ikastalarantz doan bide beretik, pixka bat igota, Hondarribiko Institutuan ikusten dugu bihurtu zena sailatu. Zerbitu lotu duen gutxielari egin ohi zaien lehen galderaz ekiten dugu elkarrizketari.

H.: Nola hasi zinen bela egiten?

J. O.: Nere aurretik, Igor, anaia, hasi zen bela egiten. Nik lau bat urte izango nitsen orduan eta gurasoekin joaten nintzen erregata ikustera. Eta gustatu egin zaitzaizen niri ere. Ni neu 6 urterekin hasi nintzen nabigatzen.

H.: Eta noiz hasi zinen erregata irabazten?

J. O.: 1998.ean urtean txapelidun infantil gertatu nintzen Moubisson-en, Bordele aldean. Hurrengo urtean Gipuzkoako txapelidun, eta 1990.ean Euskadiko txapelidun eta Ligako.

H.: Euskadiko erregata Hondarribian, Donostian, Gasteizen (Jilibari-Ganboan) eta Bilboko El Abran jokatu dira. Ligan erregata bat izaten da hilero, bakoitzaren leku batean. Bi ligan izaten dira: neguko eta udakoa. Neguko delat inportantea argitzen digu Jonek. 1991.ean ere sari mardoska bat irabazi zuen Jonek...

J. O.: Gipuzkoako eta Euskadiko txapelidun galditu nintzen berriro eta Akitania-Euskadi erregatan ere bai, eta hemendik kanpo Asturiasko Prin-



tzipatuakoa eta Alicanteko Aste Nagusian. Eta hurrengo urtean, 1992an, berri ere Euskadiko txapelidun eta Ligan ere. Espainiakoa 6. galditu nintzen.

H.: Espainiako erregata Canarias, Bartzelona, Alicante, Balearetan, Donostian eta beste hainbat lekutan jokatu izan dira. Aurren mundialektaraino iritsi zaigu Jon Menorcan, Espainiako ekipoa. Erregata horretakoa da elkarrizketari horietako argazkia. Zein izan dira aurreko pausok?

J. O.: Aurreko urtean bezala, Gipuzkoako eta Euskadiko izateaz gain Espainiako subkanpeoia izan nintzen eta Ligako txapelidun.

H.: Eta mundialektan?

J. O.: Brontzeko medalla irabazi guren...

H.: Zeinek osatzen zuten ekipoa galdetzen diogunean, katalanez dagoen egunkari bateko, *Esport Matx*, argazkia erakusten dit. Honela dio argazkiaren oinarri: «*El components de la selecció espanyola, d'esquerra a dreta: Jon Obeso, Marc Patiño, Luis César Molina, Mariano Sarminho i Juanjo Díaz. Van, provisionalment, en primer loc.*» Jonek berria osatzen dizu:

J. O.: Bost lagun ginen: andaluz bat, bi kanariar, balear bat eta ni.

H.: Zein kategoriatan irabazi zenuten?

J. O.: Optimist kategorian. Maila horietan hamabost urte artekoak sartzen dira. Horren ondoko kategoriak Europa eta vaurien dira. Europa-n lagun bakarra ibiltzen da eta vaurien-en bi.

H.: Hondarribiko Klubeko kideek zein erregata-tan hartzen dute parte?

J. O.: Optimist kategorian hamabost bat galditza, neskak eta mutilak. Mutilak gehiago gara baina neskak ere ez dira gutxi. Europa-n bederatzita bat eta vaurien-en dozena bat gutxi gorabehera.

H.: Jonek hamabost urteak datorren urtean beteko dituenek zeritan arloko den, Europa-n ala vaurien-en, galdetzen diogunean batere zailtzarrik gabe erantzuten digu: *Europan. Optimisten amets duena lotu du: mundialektan parte hartzea. Nolako zohakal behar diren, fisikoak eta sikologikoak, horretara iristeko galdetzen digu...*

J. O.: Gorputzaren aldetik pisu handiegia ez izatea komeni da eta izaeraren aldetik nerbioen jabe izatea, nerbioa ez jartzeta. Teknika ere menderatu behar da eta horretarako nahiaezkoa da entrenameta...

H.: Sei urte zituelarik hasi zen Jon bela egiten eta bederatzita urterekin txapelketetan parte hartzen. Noiz entrenatzen den, zein duen irakasle galdigten diogu...

J. O.: Lanurab eta igande guztietan. Hondarribiko Nautikoa ibiltzen gara goizeko 10.30etatik arratsaldeko 4ak arte. Gero bazkaltzen dugu, askotan Nautikoa bertan. Gure irakaslea Juan Blanco da, aspaldi honetan hemen, Hondarribian, bizi den argentinarra. Asko zor dugu berari.

H.: Asteburuak hartuak ditu, astegunetan lehen ikastola eta orain institutua. Ez zaio, beraz, beste zaletasunetarako astirik galditzen. Bela ez denaen bizikleta omen du hurrengo kirolki malteoa. Elkarriketa egiteko errekreio hartu dugu. Bukatu dela adierazteko birinrak jotzen duenean zerbal esan nahi diren Hondarribiko haur eta gazteak galdetzeko asmatan ginelat berorrek kentzen digu hitza...

J. O.: Esan jendeari bela egitea gauza ederra dela eta aukera eta erraztasun handiak daudela horretarako. Klub Nautikora joateko eta han Mercedes edo Juan Blancoren hitz egiteko...

H.: Telefonoko ere ematen dizigui edonork di dezadan hango berri jakiteko. Buruz dakizu: 641041 eta 642788. Hasieran esan bezala, Hondarribiko ikastetxeetan ere badago jardun honi buruzko informazioa. Zailtzarrik gabe, gure haur eta gazte jendeak hainbeste ordu telebistaren aurrean edo potoaten eman beharrean itsas haizearekin jokatzeta eta egurastan ikasiko balute seguruago eta sanoago nabigatuiko lukete liburuen eta lagunen artean ere. Libreago, bakar-bakarrik itsasoko haizeari aurre egin beharrean aurkitzaiek eta hura hezi eta menderatu beharrik bizitzarako ematen duen segurtasunaz. Horrelakoa somatzen zaio Jon Obesori.

HONDARRIBIA



Estatu Batuetan badago Seattle izeneko hiri bat eta han talde pila bat sortu omen da azken urteotan, Hondarribian gauza bera gertatzen ari dela dirudi. Iazko jailetako Hondarribia aldizkarian eman genuen lehen aldiz herrian sortzen ari ziren rock taldeen berri. Aurtien Bentan ospatu zen kontzertuan talde gehiago ikusi ditugu eta komunikabideetan Hondarribiko "mugidaz" hitzegiten dute jadanik. Hori da lortu den gauzarik garrantzitsuena orain arte. Gazteengan kezka berriak sortu dira, hainbat eta hainbat gazte talde hasi da instrumentoekin eta entsaioekin. Mugimendu hau mantentzea ona da, ez musikarena soilu bezala bakarrik, honentzako hitzak sortzen dituztenena, inguruan dauden artista eta argazkilaria eta abarrena baizik.

Iaz kontzertuan ikusi genituenengana jo dugu joan den urtean zehar gertatutakoa kontatzeko eta aurtengoan berarekin batera ikusi genituenengana baita ere nor diren jakiteko. "Ze arraiol!" taldea faltan bota genuen.

Orgasmic Toothpicks

Iazko emanaldia taldearen lehen pausoa izan zen aurrera jarraitzeko eta ordutik lortu diren gauzak ez dira txantxetakoak: Talde berri guztien lehen helburua ahalik eta emanaldi gehien egitea da eta hori egin dugu orain arte. Bigarren helburua ere lortu dugu, hau da, maketa bat grabatu eta kaleratzea lortu dugu. Autofinanziatuta, noski.

Emanaldirik alpagarriena irungoa izan zen, Def Con Dos talde madrildarra eta Beti Muganekin izandako kontzertua, baina gure musikak espresibitate handien laberna eta gaztetxetan izaten du.

Ingelesezt abesteak zenbait ate itxi dizkigu eta egiten dugun musika motak multzo eta giro berezi batzuetara eramaten gaitu, oso gustoko ditugun giroak dira, bestalde.

Maketa egunkari eta irratietatik mugitu ondoren lanean gogor jarraitzen dugu. Datorren negua kontzertutan pasa nahi genuke, datozen bi kontzertuak Antiguon eta Iruinean izango dira.

Ernesto

Illusions

Taldeko partaideen poltsikoen esfortzuari esker maketa kalera-zeia lortu dute. Neguan kontzertu dexente egin dituzte baita ere gaztetxe eta tabernetan. Aurtien Txilxarion Estatu Batuetako "Afghan Whigs" taldearen teloneroak izan ziren. Aurrekoek bezala ingelesez kantatzen dute eta denok ezagutzen ditugu: Illusions!

Sorotan Bele

Talde hau ezagutzen ez duenik ez dago ia Euskal Herri osoan ezta inguruan ere. Iazko jailetan egindakoa izan zen beraien lehen kontzertua. A ze nolako urtea pasa duten Sorotan Beleoek!

Kontzerturik eskaini aurretik, aurreko uda hasieran, maketa bat grabatu ahal izan genuen eta egia esan maketa honi esker, edo maketa honen erruz hasi ginen nolabait ezagunak izaten. Sei abestiz osatzen zen, gure sei abesti bakarrak.

Kontzertuaren ondorengo egunetan Elkar argitaletxetik eskainitza tentagari bat heldu zitzaigun: diska bat grabatzeko eskaintza. Ardurua handia zen taldearentzat hasi berriak baikin, beraz, burubelari abesti berriak egiten hasi ginen eta oso seriozki entsaiatzen baita ere. Ordurarte orduerdiko erreperitorioa besterik ez genuen.

Otsailaren hasieran sartu ginen estudioan eta hiru aste behar izan genituen diska amaitzeko. Taldeak lan honetan ahal duena egin du eta ez nahi duena. Kontuan izan behar da honetarako ez gurela ez denborarik ez eta esperientzia nahikorik ere. Diskak ate ugari zabaltzen dituela egia dela konprobatu ahal izan dugu, aurtengo uda oso mugitua izan baita.

Badirudi herrian nahiko ondo hartu dela gure itereara hau nahiz eta ziur aski dagoeneko nahiko aspertuta egon. Dena dela bada-biltza hor nonbait hondarribitarrek izaten jarraitzen dugula ahazten dutenik, ez dirudi oso kontent daudenik herriko norbaitek aurrera egin duen arren. Bertako taldeen arteko lehia moduko zerbait lortu nahi dutela dirudi eta errealtatetik hurrungo dagoen zerbait ez dut nik ikusten.

Gorka

Beti Mugan

Azken urtean? Beno, besteak bezain motza edo luzea izan dela uste dute. Kontzertu batzuk jo ditugu (Elorrio, Urretxu, Olereta, Elbar...) eta beste batzuk ez (Los Angeles, Paris, New York, London...).

Entsaiatzen maiztasun berberarekin jarraitu dugu, nahiz eta uda partean ordu gehiago sartu irailan bigarren diskaren grabaketa gurela eta. Hauxe izan da, hain zuzen ere, Donostian Bad Religionekin emandako kontzertuarekin batera urteko gertaera nagusia.

Diska Bordelen grabatu dugu eta guztora geratu gara lortutako emaitzarekin. Diskan hamar abesti berri aterako dira eta konpak-kuin, berriz, hamairu. Lan berri honek izango duen harrerak ez gaitu gehiegi arduratzen, guk musika ulertu eta dakigun eran egiten jarraitzea eta lantzea baita arduratzen gaituen gauza bakarra. Eta kontzertuak eman eta kontzertuak ikusi eta musikaren bidez

SEATTLE TXIKIA



solik zenbakiak baino zerbaite gehiago garena sinisten jarraitzea. Oihu egitea, dantza egitea, negarra eta parra, benetako amodioa eta gorrotoa ezagutu eta besteek ezarritako bizimoldeetatik ihes egiten saiatu musikak buruan eraikitzen dizkion bide berezi horietan murgildurik.

M.M.

Aurtengo Kontzertuan bi talde berri

Irailaren lauean Bentan bi talde berri ikusteko aukera izan genuen, biak partaide gaztez osatuak, biak zarata handia sortzen duten horietakoak, ondo eginiko zarata. Honako hauek dira:

Dirty Trick, Eskolan hasi zen Taldea

Lau mutil dira talde honetako partaideak: gitarra jotzen duena J. M. Visiers da, abotsa ere berak jartzen du. Beste gitarra Natxok jotzen du, baxuaz Guillermo Bilbao arduratzen da eta Alvaro da baterjolea.

Beraien musika definitzerako orduan Noise Rock motakoa dela azpimarratzen dute, *horrela bakarrik defini daiteke*, eta musika mota honetara iristeko eraginak "Nirvana" eta "Stone Temple Pilots" taldeena dira beste batzuen artean.

Talde honen hasiera eskolan eman zen, duela bi urte inguru urtean behin eskolako jendearentzako jotzen hasi zirenean, lehen beste baxujole batekin, Guillermo, aurtengo otsailan elkartzu zitzaizkion. Ordutik elkarrekin entsaiatzen dute, lehen baino maiztasun handiagoz.

Momentuz kontzertu bakarra egin dute, Hondarribiko Jaietan eginikoa hain zuzen ere.

Grabaketarik badute, bakar bat, beraien grabaketa izan zen baina kaleratzeko maketarik ez dute momentuz egin. Irunen eta inguruan kontzertuak emateko mugitzen ari dira eta hau da ematen duten telefono zenbakia: 280460.

Kaixo, hau "Dut" da eta Hondarribiko jaiak hemen hasten dira

Horrela hasi zuen Manex abeslariak "Dut" taldearen emanaldia irailaren 4ean eskainitako kontzertuan. Hona hemen taldearen aurkezpena beraien hitzetan:

Enekok eta Xabik gitarra jotzen dute, Josebak baxua. Baterjolea Galder da eta abotsa Manexen ezarritik ateratzen da.

Martxoaren bukaera inguruan hasi ginen jotzen, ondo pasatzeko bakarrik. Oso noizean behin elkartzeko ginen zerbaite egiteko, lokalararen arazoak zela eta. Beno, egia esan, alperkeriaren errua ere alpatu behar da. Egun batean esan genuen: zergatik ez dugu jaietako kontzertuan jotzen?

Beraz, udan jo ta ke hasi ginen entsaiatzen. Manex itsasoa zegoen eta abestiak azken bi astetan ikasi behar izan zituen. Gauza bera gertatu zen Xabirekin, kontzertua hasi baino 20 egun lehenago sartu baitzen taldean.

Musika motari dagokionez, pentsatzen dugu guk egiten dugun musika "Hard-core" dela. Argi dago guk ez dugula musika mota bat asmatu. Dauzkagun eraginak asko dira eta musika mota desberdinetakoak. Entzuten dugun edozein gauza jotzen dugu, egia esan gehien eragiten diguten taldeak "Hard-core" musika egiten dutenak dira edo musika mota honen inguruan dabilen taldeak, baina era berean eragiten digu Funk, Reggae, Thrash, Grunge, Jazz, Rap, Punk, Pop, Mambo edota telebistako programetako musikak eta kantu Gregorianoak. Musika guztiek balio dute. Garrantzitsuena musika zure moduan interpretatzea da nahiz eta hau oso zaila izan. Beste gauza bat, eta garrantzi handikoa baita ere: musika sentitu egin behar da.

Izenaren jatorria: Ez genekien zein izen aukeratu, erraza zen izen bat nahi genuen, ez genuen Euskal Herrian tipiko diren horietarikoa bat nahi. Beno, azkenean kamiseta batetan zerbaite idatzita zegoen, hor tartean "dut" hitza jartzen zuten. "Dut" hitzak soinu polita dauka "dut", "dut", "dut", "dut".

Orain arte lau kontzertu eman ditugu, lehena sorpresa izan zen, nolabait estreinatzeko, Irungo Depor taberna. Gero jaietan, Amuten eta Aretxabaletan jo dugu. Guztiak nahiko ondo atera zaizkigu. Etorrizunera badoazkagu kontzertu batzuk planetan baina oraingoz ez dago ezer zehazturik.

Grabatuta bi kanta dauzkagu, guk grabatutakoak, espero dugu laister maketa bat kaleratu ahal izatea.

Eta Bentan argi geratu zen momentu honetan ez dagoela Euskal Herri osoan rock munduan Hondarribia bezalako herririk. Bai sormen lana, orijinaltasuna eta baita kalitatearen aldetik ere. Urtean behin kontzertua antolatzea idela ona da eta pauso garrantzitsua baita ere baina honek ez du aitzaki bilakatu behar. Erreportaia honetako talde guztiek lagundu dute eta era berean denek adierazi dute kezka bera: Entsalatzeko lokalen beharra handia da. Hondarribiko "mugida" ez da hondarribitarrok gure artean komentatzen dugun zerbaite bakarrik, kazetariak beraien mediotan esaten dutena baizik, beraz hasi den hau bukatu ez dadin denok egin beharko dugu lan.

BITXIKERIATAN DABILENA

USO MEZULARIAK KOMUNIKABIDEAK UTZI ETA LEHIAKETETAN SARTU DIRA

Telefonoak eta irratia aspalditxo erretiratu zituzten usoak komunikabideetatik. Baina uso hauek erakargarriak bihurtu eta bereizten dituzten ezaugarriak nahikoak dira zaletu batzuentzat hazten eta prestatzen jarraitzeko gero horrela lehiaketetan parte hartzeko. Zaletu hauetariko bat Juanito Larrarte hondarribitarra da. Txoriek beti erakarri dute eta 28 urte igaro dira bere amonaren baserritik lehenengo uso mezulari bikotea lortu zuenetik.

J. LARRARTE: Beti izan dut txorienganako zaletasuna. Nere amonak zituen usoekin hasi nintzen, handik lortu nuen lehenengo bikotea. Gero beste batzuk Billabonatik ekarri nituen... Amonak uso arruntak izaten zituen, gertatzen zena zen, mezulariak nekaztuta elortzen zirela eta barkotan jasotzen zituztenak ekartzen zizkietela. Berak besteengandik berezita izaten zituen, kaiola berezi batzutan eta niri beti gustatu zaizkit. Handiagoak dira, burua, begiak, politagoak ziren, oso ezberdinak.

HONDARRIBIA: Eta ezaugarri fisiolojiko hauetatik aparte zein ezaugarri bereizten ditu uso mezulariak arruntengandik?

J. L.: Ezagutzen duenak berehala bereiziko luke 100 edo 200 usotatik zein den mezularia, begirada hutsarekin. Bere begirada dizdiratsuak bista hobeagoa duela adierazten du. Usoa bere instintoarekin jaiotzen da, egin behar dena berezko grina hori berri-zeza da. Hori pixkanaka pixkanaka hartzen da eta beno, lehendabizi distantzia txiki batekin hasten gara eta gero hau handituz goaz. Usoa indartuz doa eta bidean ere ikasten du: arranoek jarraitzen dutenean izutu egiten da eta horrela esperientzia irabazten du. Urteak pasatzen direnean asko ibili den uso bat erraz bereizten da, beste itxura bat du.

H.: Baina zein printzipioak zuzentzen du uso mezulariaren iharduera?

J. L.: Usoa beti itzuliko da bere usategira. Ez du bidea ezagutzeko beharrik. Hemen kanpoan bakarrik ibili den uso bat hartzen duzu, nik egin dut saiakera, entrenamendurik gabe, ezer gabe, Burgosen askatu eta hiru ordutan etortzen da. Ezagutu gabe haiek badakite eguzkiarekin orientatzen izarekin baita ere, eta badakite usategia non dagoen, baita non askatzen duzun



Amonaren etxetik datorkio zaletasuna

ere. Badirudi mapa bat dutela; mapa horretan trazaraten dute norabidea eta etortzen dira barra, barra.

H.: Baina alpatu duzun usoak galdu egiten dira, zergatik izaten da?

J. L.: Indarrak hutsigaitzen duenean, orduan galdu egiten dira gehienak. Askotan galtzen da uso bat, baina base-ri, etxe, iskin batetan gelditzen dira, han atsedan pixka bat hartu ondoren eta janaria ematen badiote, aste batean edo bitan askatzerakoan usategira itzultzen da oso ondo. Bruma, lanbroarekin ere ezin dute pasa. Esperientzia duten uso zaharragoak gelditu egiten dira, egun bat, bi, hiru eta baita aste-bete ere, eta ta! eguraldia altxatzen denean, bral etortzen dira. Harritzeko moduan gainera.

Esperientzia horiek bizi egin behar dira.

Behin larunbata batetan Cadizen askatu ginen usoak, hemen bruma

zegoen, mendiak estalita zeuden eta astebezez horrela egon ziren. Beno, bada larunbatean lainoa altxatu egin zen eta goiz berean usoak itzuli ziren. Danak luinean eta Gazteizen, muga horretan zeuden iskin batetan, eguraldia hobeagotu zenean sartu egin ziren. Gazteak berriz, pitxoiak, galdu egiten dira. Etxera itzuli nahi dute eta bruman hegaka hasten dira, azkenean edozein iskinean lehortuta gelditzen dira.

H.: Orduan esperientzia eta entrenamenduak beharrezkoak dira uso batek distantzia luzeak egiteko?

J. L.: Bai, horregatik hasten gara distantzia motxekin eta eguraldi onarekin. Gero esperientzia gehiagorekin eguraldi txarra edo erdi estalia dagoenean askatzen dugu usoa. Berandua- go iristen dira baina horrek esperientzia ematen die, Euriak ez die kalte handirik egiten.

H.: Mezuak bidaltzeko kontua aspaldi bukatu zen, orain lehiaketetan azaltzen dira usoen gaitasunak. Nola antolatzen dira txapelketa hauek?

J. L.: Txapelketak gure elkarteak antolatzen den "hegaldi plana"ren arabera antolatzen dira. Norabidea bertan aukeratzetan da, hau da, non eta noruntza askatuko diren: Frantzia aldera, Cadiz aldera... Norabidea erabaki ondoren, demagun Frantzia aldea erabaki dela, 100 kilometroekin hasten gara, Donibane Lohitzunetik Bilborako bidea. Gero diezko berean gero eta urrunago joaten da: Pau, Toulouse, Carcassonne, Montpellier, Nizararte. Ekaina eta iraila bitartean izaten dira txapelketa hauek.

H.: Lehiaketetan parte hartzeko usoek, nolabait esateko, federatuta egon behar al dute?

J. L.: Uso bakoitzari, jaiotzerakoan, Federakuntzaren estun bat jartzen zaio txapelketan parte hartzeko, bizi-tza guztirako. Nik beste bat jartzen diot eta froga bakoitzean plastikozko beste bat jartzen zaio, gero kontrola egiteko. Askatzen den lekuan badago federakuntzako epaile bat eta horrek baieztatzen du usoa askatzen dela. Gero bakoitzak erloju bat du bere



Usoz inguratuta bizi da Juanito Larrarte

etxean, lantegietan fitxatzeko erabiltzen direnen antzekoa. Usoa etortzen denean gomazko estuna erlojuan sartzen da eta inprimaki bat ateratzen da eguna, ordua, minuto eta segundoe-kin. Denboraldia bukatzerakoan denok biltzen gara bazkari batean eta han aurkezten diren fitxen arabera banatu-ko dira trofeo edo diplomak.

H.: Esan daiteke uso mezulariak komunikabide izatetik kirolera pasa direla?

J. L.: Momentu honetan uso mezu-
lariak bakarrik txapelketarako erabiltzen dira. Denbora batean bai, erabili ohi ziren mezuak bidaltzeko, orain ber-
riz, ez. Gaur egun telefonoarekin eta irratiarekin atzeratuta gelditu dira usoak. Duela hiru urte etxe batetan egondako uso bat etorri zen, han me-
zu bat jarri zioten. Bertan idatzi zuten 15 egunetan janaria eman ziotela eta aske utzi zutela. Niri etorri zitzaidan gero, jateko eman eta jarraitu zuen... Ez dakit bere etxera heldu zen baina duten amorru hori ez dute galtzen.

Uso bat toki itxi batetan egon daite-
ke urtebete. Umeak egin ditzake, bai-
na usoa libre uzten baduzu, bere leku-
ra joateko duen grina hori ez du inoiz galtzen.

H.: Ba al dago distantzia mugarik uso batentzat?

J. L.: Aurten Nizan askatu ditugu, Hondarribitik 745 kilometrotara, Bilbo-
tik 825 eta Santanderetik 900 kilome-

trotara. Espainian distantzia haundie-
nak Bartzelonakoek egin dituzte; 1000
kilometrotik gorakoak, usoak Portuga-
len askatu eta gero. Belgiarrek usoak
Balentzian askatu zituzten eta ez zi-
tzaien oso ondo atera. Colombian ber-
riz, 1.200 kilometrotako distantziak on-
do bete dituzte, leku laua bait da. Gu
nekez hurbiltzen gara distantzia haue-
tara. Mendiak hemen bertan ditugu
eta usoak frenatzen dituen eguraldi
txarrak bezala. Frantzia aldean erra-
zagoa da, zenbat eta terreno lauagoa
orduak eta kilometro gehiago egin di-
tzakete, arrisku gutxiago bait dago.
Mendiko pasoetan milaka hegazti ego-
ten dira usoaren zain halek baitakite
usoak paso naturaletatik igaroko dela.
Beriz ere esperientzia da zailtasun
hauek gainditzeko usoek behar duen
gaitasuna.

H.: Uso bati noiz etortzen zaio sasoi
onena?

J. L.: Uso bat 14 urte edo gehiago
bizi ditzake. Txapelketetan parte har-
tzeko pitxioak direnetik, 5, 6 urte dituz-
tenerarte erabiltzen dira, gero hazike-
tarako gelditzen dira ume onak atera
ditzutenak.

H.: Haziketaren metodo bat jarrai-
tzen al da, geroz eta uso hobeak lor-
tzeo?


J. L.: Urtean zehar arrak eta emeak
banatuta daude, bi kailoa haunditan.
Egun batean ateratzen dira arrak, bes-
te batean emeak. Gero, azaroa eta

otsaila bitartean bikoteak egiten ditut
umeak egiteko. Ondoren, nola aterat-
zen diren ikusi eta gero sailkatu egi-
ten ditut eta onenak hautatu. Momentu
honetan 80 uso inguru ditut, 15 sobran
nere ustez. 70 uso gelditzen badira
oso ondo biziko lirake, danak lasai.
Sobratzen diren hamabostak uzten ba-
ditut, ez dira 15 horiek bakarrik gaizki
egongo, denak daude gaizki. Beraz,
ez dago zalantzarik; sobran daudenak
hil. Gehiegizko populazioak estresa
sortzen du usoen artean, bakoitzak
bere espazioa zaintzeko borrokan da-
goelako. Usoak burua galtzen du eta
ez du lehiaketan parte hartzeko balio.
Kirolari bat bezala, usoak txapelketan
aurkeztu ahal izateko argi mantendu
behar da.

H.: Zabaldua al dago uso mezula-
rien zailtasuna?

J. L.: Bilboko elkarteak 35 lagun in-
guru biltzen ditu, Miarrizten, berriz, 60
usozale daude. Inguru honetan bada-
go jende gehiago; Beran, Pasaian, To-
losan... Mundu guztian egiten dira ho-
rrelako txapelketak, gero eta urrutirago
balditzen dira. Gure arazo handiena
uso gutxi ditugula da; Bilboko lagunek
1.500 uso askatzen ditugun bitartean
Belgijarrek adibidez 10.000 askatzen
dituzte, eta noski, beren meritoa han-
diagoa da. Guk oso uso onak ditugu,
mendietan ibiltzen ikasi dutenak, baina
oso gutxi dira.

GURE PATRIARKAK: SAGARZAZU



Aldizkari honetan argitaratutako Tife familiaren berreraiketak izan zuen harrera ikusita, eta jasotako adierazpenek eraginda, herriko beste abizen edo familien ikerketa egin eta jakineraztera bultzatua nago nolabait.

Saiatuko naiz, ba, gure herrian hain itsatsi eta zabalduak diren abizen batzuek aztertzen, azkeneko bi edo hiru mendetan eta gaur egun arte zuzen zuzenean jarraitzen dutenak, batez ere. Adibide bezala, aipatuko nituzke: Berrotaran, Oronoz, Etxeberria, Sorondo, Alza, Zuzuarregui, eta abar.

Itun Zaharreko liburuetan, famili haundi eta zabalak buru edo sortzailetako pertsonen Patriarka deritzoten. Hemen ere, paralelismo bat eginez, esan dezakegu herriar guztiok arbasoren bat badugula noizbait hemen Hondarribian finkatua, eta familia bakoitzaren abiapuntu bezala hartu beharko genuena.

Hasiko naiz, ba, gehien zabaldua den abizenarekin, SAGARZAZUarekin hain zuzen.

Ikusi dezagun nor den herri honetako SAGARZAZU Patriarka.

Aurkitu dudana datu zaharrena 1650ekoa da. Maiatzaren 3an Pedro SAGARÇAÇU CIGARROA jaiotzen da. Bere gurasoak Juan eta Magdalena dira. Bost urtetara bere anaia Miguel jaioko da. Bataio agiri horietan beste daturik ez dago. Gurasoak bertakoak edo nondik etorriak ziren ez du esaten, zein etxetakoak ere ez.

Ordu ezkerotzik eta 1958. urteraino jaiotze agiritan, 774 pertsona dira SAGARZAZU lehen abizenekoak eta beste 532 bigarren abizen bezala daukatenak.

Dozena erdi bat pertsona kenduz, beste guzti horien loturak uztartzerakoan, 5 famili adarretan 1.300 pertsona horiek elkartzeraino lortu dut. Hemen, eta datu gehiegik ez nahaste arren, adar bakar bat aukeratzeko da, jenderik gehien hartzen duena alegia, gutzira 662 pertsonakoa. Beti, esan bezala, 1958 arte.

Adar honetako datu zehatz eta zaharrenekin Juan Felipe SAGARZAZU NOVOA MADARIAGA agertzen da, 1682ko maiatzaren 3an jaioa (ikus Parrokiko Bataioen 3. liburua). Bere gurasoak Ramos eta Catalina

ziren. Maria Francisca Iriarterekin ezkonduko da 1710eko otsailaren 23an. Eta juxtu 8 hilabetera hiltzen da, eta, zoritxarrez, 10 egun barru jaiko den bere seme bakarra ezagutu gabe galnera.

Hala ere, haren seme "postumo" honek jarraituko du abizena mantentzen, eta ez nolanahi, zeren eta beste hurrengo 8 belaunaldietan sortuko baitira 600dik gora SAGARZAZUtar.

Juan Feliperi buruz, Udalerriko Artxiboan (E-8-III-35-2) 1706. urteko espediente interesgarri bat ere aurkitzen da. Beraz, 24 urte zituenean, herriko alkate eta epaile zenari "hixos dalgo, notorios de sangre, christianos viejos, limpios de toda mala raza..." onartzea eskatzen dio. Eskaera egiterakoan eta lekuko edo testigo batzuen bidez, bere aita "goza de los onores que los demas cavalleros hijos dalgo" argudiatuz adierazi eta frogatzen du.

Honelako eskaera egiteak, familia bat bizilekuz edo herriz aldatzen dela esan nahi du. Alde batetik, bere aita Ramos, bere jaioterrian "hijo dalgo" bezala onetsia baldin bazen, beste aldetik, berak ere, herri honetan ere, titulo eta ohore berdinak jasotzeko eskubide guztiak dituela exigitzen du.

Hortaz, bere aita ez zan hondarribiarra. Nongoa, ba?

1740. urteko beste hidalgia espediente batean, beste SAGARZAZUtar biren eskaera berdina azaltzen da. Bat irundarra, eta oiartzuarra zen bestea. Nahiz eta beraien guraso eta aiton-amonen famili loturarik ez aipatu, "son parientes muy cercanos" eta "descendientes de las casas solares de SAGARZAZU... sitas en el dho valle" (Oiartzun) direla esaten da.

Orduan, gure Patriarka Ramos SAGARZAZU ere oiartzuarra izango zen? Ugaldetxo auzoko SAGARZAZU baserrikoa? Auskalo!

Ramos alde batera utzi eta, hamaika istorio kontatu daitezke bere hainbat ondorengoetik!

Dokumentu eta paper zahar askotan topatu gintezke SAGARZAZUtarrekin arrantzan, nekazal lanetan, alkate, arrantzaleen kofradiko maiordomo, zinegotzi eta dimisionari gainera, harotz edo hamugile bezala,... Inglaterrako espetxean, edo Cuban, edo piraten aurka "en corso" hilak.

Luzeegia izango litzateke paper horietan kontatzen diren istoritxo xehe eta xamur horiek hemen kontatzea. Oraingoz, eta bukatzeko, nahikoa izango da aipatutako 9 edo 10 belanuldiko SAGARZAZUtar adar ugaritsuenaren famili loturak eta elkarren arteko senidetasuna, kuadro mardul honen bidez azaltzea.

Fermin Olascoaga

"HONDARRIBIA" ALDIZKARIA IZEN HAUEI ESKERRAK ZABALTZEN DA HERRIAN:

Portuan: LANKIDE AURREZKIA
OLEARSO LIBURUDENDA
GOIKOETXEA JANARIDENDA
KUTXA
GAUR ALDIZKARI DENDA
LAPITZ ESTANKOA
ALBISTUR ETA AROZENA HARATEGIA
GAXEN CROISSANTERIA
IZA LIBURUDENDA
INDICE LIBURUDENDA

Alde Zaharrean:
ARMA PLAZAKO ESTANKOA
GIPUZKOA PLAZAKO LIBURUDENDA

Damarrin: LIBURUDENDA

Amuten: ANZA JANARIDENDA
LUISEN HARATEGIA

Mendelun: ESTANKOA
ARRATIBEL OKINDEGIA

Sokoan: SOKOAKO LIBURUDENDA

MILA ESKER DENO!!!!

ORAINDIK HEMEN GAUDE BIZIRIK!!

Orain dela bi urte iragarri genuen bezala, EMEKIk lokal berria du, AXERI elkartearen gainean.

Kurtso hasierarako izan ez bazen ere, 1992ko Gabonetan giltzak hartu, lokala behar bezala prestatu eta urte berrirako bertan ematen hasi ziren ordurarte KUTXAKo lokalean ematen ziren ikastaroak.

Ondoren iazko neguan gure elkarteak antolaturiko ekitaldi eta ikastaroetara buruzko informazio eta nolabaiteko balantzea azaldu nahi dizuegu: aurreko urtean bezala, urte honetan ere hilabetero bi hitzaldi eman dira. Beharbada ohitura faltagatik edo, batzuetan nahiko jende bildu zen arren hitzaldi gehienetan jendez eskas xamar ibili garela esan beharra dago.

Ikastaroetara dagokionez berriz, emakume gehiago erakarri dituzte, hauen interesa eta ikasteko gogoak garbi gelditu delarik kurtsoan zehar. Aipagarria da aldi berean taldean sortu den giroa ere, izan ere emakumeen artean lagun berriak egiteko eta bere ingurua zabaltzeko balio izan baitute orokorrean ikastaro hauek.

Ondokoak izan dira aurreko kurtsoan emandako ikastaroak: Bate-tik, eskulanean hirudimentsiozko eta makramea ikasteko aukera izan dugu; hezkuntza eta hizkuntza aldetik berriz, ingelese eta frantsiera, bai eta eskola-graduatuak delakoa ere prestatu ahal izan dugu bertan.

Era berean, nork bere burua ezagutzeko eta garatzeko, joga, autoestima eta astrologia egin dute beste hainbat ikaslek; Sebastianek sukaldaritza ikastaro bat eman zuen negu partean, eta azkenik ezin dugu ahaztu "Truck"en egin genuen kurtso bukaerako afaria prestatu zuela berak ere. Bertan Maritxu "Begi zuri" eta "Yolako" M^a Luisa omendu genituen.

Uztailean, Santiago inguruan, Itxas Etxean erakusketa bat antolatu genuen, kurtsoan zehar eginda-



Aurtengo emakume omenduak

ko eskulanak bertan erakutsi ahal izateko; arrakasta handia izan du ekintza honek, eta oso baliagarria izan dela ere ez dago dudarik, hain zuzen emakume hondarribitar askok herrian bertan gauza interesgarriak egin daitezkeela ikusi baitute.

Martxoak 8an egin genuen bezala, Herriko jaien hasieran, hau da hilak 3an Emekik antolaturiko Bertso jaialdia ospatu zen, parte hartu zuten bertsolarien artean erdia emakumezkoak izan zirelarik.

Datorren kurtsoarako prestatu ditugun ikastaroetara dagokionez berriz, ondoko atal ezberdinetan sailkatu ditugu:

HIZKUNTZAK
ESKULANAK
GARAPEN PERTSONALA
IKUS-ENTZUTEKOAK
ASTROLOGIA
YOGA
HELDUENTZAKO HEZIKETA
PERMANENTEA

Azken sail honetan Udaletxearekin batera "Eskola Graduatuaren Prestakuntzarako Sarrera" eta "Eskola Graduatuak" ikastaroak presta-

tu ditugu; dohain izango dira, beraz ikasteko gogoz edota beharrez dagoen inor balego, hemen luke aukera ederra. Dagoeneko guztira 100 bat ikasle bildu dira, ikastaroak denentzat zabalik badaude ere gehientsuenak emakumezkoak izanik.

Bide batez esan zenbait hitzaldi interesgarri ere emango direla kurtsoan zehar, eta ekintza hauetaz gain kurtso hasieran itenaldi bat ere egingo dugula, Isturitz, Donibane-Garazi, Kanbo, eta Saran zehar alegia, pixkanaka Euskal Herria ezagutzen joateko eta egun eder bat elkarrekin igarotzeko ere.

Emakume guztiek dugu orain elkartzeko leku bat, San Pedro Kaleko 37. zenbakian, hau da EMEKIk Elkartearen. Lagun artean bildu eta zerbait hartuaz denbora pasa, gure arazoez hitzegin, elkarri lagundu eta gustora egon nahi duzuen guztiak ZATOZTE!!

Zuen eskutan dago prestatutako guztia aurrera eramatea eta Hondarribiko Emakumeak gero eta elkartuago egotea.

Agur t'erdi.

EMEKI,
Emakume Elkarte

BERTSO SAIOA

Aurtengo alardean konpania berria!!

Kofradiako aretoa bete beterik dago, bertso saioa hasteko ordua iritsi da, baina hemen ez da iragarritako bertsolaririk azaltzen, ez eta atzerapen honen arrazoiak argituko dizkigun inor ere. Bestalde, ikuslegoa lasai asko dago, bertako zenbait neska gaztek eskaintzen ari diguten trikititxia espektakulu atsegina eta ederra minutu gehiagor jasateko prest baikaude.

Denbora aurrera doa, trikitilariei jadanik agortu egin zaie erreperitorioa, eta bapatean, ikuslegoa ipurdia aulkitik altxa eta atzeruntz zein alboetarantz ere hainbat bira ematen hasi den unerako aurkezle eta ondoren gai jartzaila izango denak azaldu den bertsolari bakarra Andoni Egaña dela iragarri du. Bakarra, eta zapi gorria lepoan duela izugarritzko juerga

ixurarekin azaldu den bertsolaria bera!

Andonik berehala barkamena eskatu, bere saiokideak nonbait galdutxo eta Benta aurki ezinean ez ote dauden bere buruari galdeginenez, "ajola ez bazaigu behintzat" saioa hastea proposatu du, guztien harridura eta deskontzertua nagusitu den aldian.

Bota du lehenengo bertsoa, fina bera, eta bapatean han non azaltzen diren Joxe Lizaso alardeko kapitaina baitlitiz txapela handi eta guzti! Alardeko martxaren doinuaren erritmoa jarraituz, atzetik hatxero bat datorrela ohar-tu gara, bai eta berehala nor ote den bataik besteari apostu egiten hasi ere.


Kantinerarik ere ez da faltatu bertsolariek osaturiko konpania berri honetan, ezin hobe aukeraturako Maialen Lujanbio berak ustegabea harrapatu gaitu benetan guztiak. Abaniko ederraz eta

bere xalero guztiarekin ikuslegoa agurtu du Maialenek, eta bere atzetik zetorren Estitxu Arozena general serio eta beldurgarria bai eta Amaia Telletxea eskupetarekin azaldu ere!

Gainontzekoak nortzu ziren jakin dugu erraz, bestalde martxa hain ondo eta serio jarraitzen zuen hatxeroa nor ote zen oraindik argitu ezinean genbiltzala, han altxatu da gizajoa Lizaso Kapitainaren arrazoirik gabeko haserreaz defendatzera. Zein eta... Angel Peñagarikano bera!!!

Ondoren, saio atsegina izan da, alai, eta azkenik titibiltirik jotzen ez dakien konpaniak bestalde doinu politex girotu gaitu jalei hasera eman dien saio dibertigarri honetan. Ederra benetan 21. konpania!!

Laugarren lerroko seigarren aukian eseri dena.



HONDARRIBIA MARTXAN

X. LITERATUR LEHIAKETA, "BORDARI" ETA "SATARKA" SARIAK. 1993

Hondarribiko Udalak, idazle berriak sortu nahian, Bordari eta Satarka sariak antolatatu ditu aurtengo honetan hamargarren aldiz. Bordari Saria ipuin lehiaketa da eta Satarka Saria olerki lehiaketa. Hauetan parte hartzeko baldintza eta oinarriak Udaletxean lor ditzakezue.

BIDASOAKO INGURUGIROAREN IV. TOPAKETAK

Urriak 18, astelehena:

19etan: BIDASOAKO INGURUGIROAREN IV. TOPAKETEN inaugurazio ofiziala. Eusko Jaurlaritzako ordezkaria, Gipuzkoako Foru Aldundiako ordezkaria, Hondarribiko alkatea eta Irungo Alkateen partaidetzarekin. **Tokia:** Hondarribiko Udaletxeko Areto Nagusia.

19,30etan: Hitzaldia: "Ohitura aldaketa gizarte eutsi bat lortzeko". **Hizlaria:** Jordi Bigas (INTEGRAL aldizkariaren zuzendaria). **Tokia:** Hondarribiko Udaletxeko Areto Nagusia.

Urriak 19, asteartea:

18,30etan: Dokumentala: "Bidasoa ibaia". **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

"Txingudi, orainaldia eta etorkizuna" erakusketa irekiko da eta urriak 23 larunbata arte zabalik egongo da. **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun. **Ordutegia:** 10etatik 13etara eta 16etatik 20etara.

19etan: Debatea: "Txingudiren gaurregungo egoeraren azterketa". **Hizlariak:** Inmaculada Arteaga (EKOS), Jorge Letamendia (Eusko Jaurlaritzako Ingurugiroko Lurralde Ordezkaría). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

19,30etan: Zinea: "Los últimos días del edén" (John McTiernan). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

20etan: Debatea: "Txingudiren etorkizunerako perspektibak". **Hizlariak:** J. M.ª Sanz de Galdeano (Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordeko Teknikaria), Jorge Letamendia (Eusko Jaurlaritzako Ingurugiroko Lurralde Ordezkaría). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

Urriak 20, asteazkena:

19etan: Hitzaldia: "Ekogarapena". **Hizlaria:** Joaquín Araujo (ONU-ren Global 500 sariduna). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

Urriak 21, osteguna:

18,30etan: Dokumentala: "El reverdecer de Thailandia". **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

19etan: Mahai-ingurua: "Garapen eutsigarria Bidasoa Beheko Eskualdean". **Hizlariak:** Eskualdeko agente sozial eta ekonomikoak. **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

19,30etan: Zinea: "Bajo la aurora boreal" (Toshio Goto). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

Urriak 22, ostirala:

19etan: Hitzaldia: "Garapen eutsigarriko egitarau bat Espainiako estatuarentzat". **Hizlaria:** Joaquín Fernández (R.N.E.-ko kazetaria). **Tokia:** Amaia Kultur Zentroa. Irun.

20,30etan: BIDASOAKO INGURUGIROAREN IV. TOPAKETEN amaiera ofiziala.

UDAL EUSKALTEGIA: EUSKARA IKASTAROAK 1993-94

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta E.G.A.

Oraindik badago tokirik.

BERTSO ESKOLA

Iaz estreinatu zen Bertso Eskolaren arrakasta ikusiaz antolatzaileek, Udal Euskara Kontseiluak, alegia, proiektorekin jarraitzea erabaki dute.

Ikasleak hiru taldetan banatuko dira adinen arabera bakoitzak bere irakaslea izango duelarik:

- Helduen taldea: Sebastian Lizaso.
- Gazteen taldea: Mayi Iza.
- Haurren taldea: Miren Legorburu.

Izen ematea: Sainduan edo Udaletxean egin daiteke.

HONDARRIBIKO VII. OLINPIADAK

Deialdia. Ideiariak eman nahi duzenek edota izena eman nahi duzenek, Saindua Gaztetxean lortu dezakezue informazioa.

I. FIKZIOZKO BIDEO KORTO EMANALDIA

Urriaren 15ean arratsaldeko 19etan inguruko zenbaitek bereak egin eta etxean dauzkaten fikziozko kortoei hautsa kendu eta emanaldi honetan aurkeztuko dituzte. Emanaldia guztiontzat irekia da, eta dohain. **Tokia:** Saindua Gaztetxea.

Aurtengoa aitzindaritzat hartuz antolatzaileen helburua aurrerantzean izkutuan ditugun artistak eta hauen lanak ezagutzeko aukera bat sortzea da.

EMEKI ELKARTEA

Ikastaro ugari antolatatu ditu elkarte honek aurtengo negurako. Informazioa EMEKiren lokalari.

DEMOGRAFIA

JAIOTZAK:

ABUZZUA:

21ean: ENDIKA Etxeberria Arriabarrena. Gurasoak: Esteban eta Miren Goizone.

27an: MARKEL Ramiro Gastañares. Gurasoak: Jose Luis eta Ana Isabel.

29an: JON Sorondo Perez. Gurasoak: Pablo eta Cristina.

IRAILA:

2an: ROCIO Andres Cabezon. Gurasoak: Pedro M^a eta Ana M^a.

8an: JON Olaetxea Azcarate-Ascasua. Gurasoak: Martin eta Ana Carmen.

9an: IÑAKI Etxebarria Etxabe. Gurasoak: Eugenio eta M^a Pilar.

10ean: MIKEL Barandiaran Anda. Gurasoak: Josu eta Miren Nekane.

11an: IKER Zabala Urzain. Gurasoak: Juan Ignacio eta Eva.

19an: IÑAKI Redondo Oliden. Jose M^a eta M^a Jose.

20ean: UNE De La Fuente Errazkin. Gurasoak: Iñaki eta Amaia.

22an: AITOR Bazterrika Oka. Gurasoak: Pedro eta M^a Teresa.

25ean: ION Garaikoetxea Guruzeta. Gurasoak: Iñigo eta Sara.

EZKONTZAK:

ABUZZUA:

28an: Jose Ignacio IGOA CHANCA, Irungoa eta M^a Angeles BARREIRO ZUBILLAGA, Hondarribikoa.

- Jose Ignacio BERASARTE TRECU, Lezokoa eta M^a Concepcion ALZAGA GARMENDIA, Hondarribikoa.

IRAILA:

3an: Jose M^a PERUARENA SORONDO, Hondarribikoa eta Yolanda IZAGIRRE AZPIAZU, Errenterikoa.

Carlos OLASOLO ALVAREZ, Pasaiakoa eta Mirari AGINAGALDE GOIKOETXEA, Hondarribikoa.

Carlos ZALDIVAR MARTINEZ, Madrilgoa eta M^a Luisa VISIERS LECANDA, Hondarribikoa.

4ean: Benito BEROZ SAGARZAZU, Hondarribikoa eta Idoia BASTERRETXEA SOTO, Hondarribikoa.

11an: Jose Ignacio GANBORENA KE-REJETA, Hondarribikoa eta Milagros CORTES FERNANDEZ, Donostiakoa.

Juan Miguel MENDIZABAL EGI-BAR, Andoaingoa eta Amaia SAN MARTIN ARISTEGI, Hondarribikoa.

18an: Arturo ESPINOSA BARCA, Hondarribikoa eta M^a Cristina GURTUBAY SALICIO, Hondarribikoa.

Francisco Javier BOLLO AROCE-NA, Donostiakoa eta M^a Jose BILBAO LEIZA, Hondarribikoa.

24ean: Jose M^a BEGIRISTAIN MARSA, Irungoa eta Josune LASALDE VIRTO, Hondarribikoa.

25ean: Laurentino GOLMAR FERNANDEZ, Donostiakoa eta Jalone BOLLAIN ETXEBESTE, Hondarribikoa.

Jose Ignacio AINAGA LATEGI, Hondarribikoa eta M^a Mercedes CABEZAS CORRAL, Berakoa.

Manuel IZETA ORTUETA, Hondarribikoa eta Elena LLANOS GATO, Irungoa.

HERIOTZAK:

ABUZZUA:

30ean: Isabel ZABALETA ZABALETA, 90 urtekoa. Zubietan, 10. Gebara Borda.

IRAILA:

10ean: Juan Jose SUSPERREGI ENPARAN, 82 urtekoa. San Pedro, 12.

Cosme Jesus ALONSO GARCIA, 69 urtekoa. Resid. Guadalupe, 9.

20ean: Edilberto GARCIA MIGUEL, 84 urtekoa. Beñat Etxepare, 3.

DENBORAPASA

Gure herriko hamar auzoen izenak azaltzen dira zopa hotzetan nahasturik. Ea aurkitzen dituzun!

T	D	J	D	M	A	O	T	T	U	I	I	N	E
Z	A	A	N	M	R	U	I	I	G	T	E	A	U
A	A	I	Z	A	R	G	N	E	A	T	N	A	S
L	I	Z	N	O	A	N	T	O	N	E	N	R	N
U	T	U	S	E	H	R	O	A	A	G	U	K	N
S	N	B	N	G	A	J	A	A	A	N	Z	O	W
E	R	I	A	K	Z	I	M	T	U	U	E	L	Z
M	M	A	A	A	E	N	L	S	N	T	N	L	T
I	E	E	T	E	D	S	U	O	Z	I	R	A	I
S	N	N	N	E	L	E	T	K	K	I	N	O	L
A	A	H	D	O	A	E	A	E	R	I	A	B	P
R	E	A	A	E	G	R	T	E	A	I	N	A	E
G	H	E	N	N	L	A	M	U	T	E	Z	G	R
A	L	K	S	E	Z	U	E	A	T	N	E	R	E

